

Telebistako arkitektura



ULA IRURETAGOIENA

20 urteren ostean, Anne Igartiburu EiTBra itzuli da, zer eta arkitektura lantzen duen programa bat aurkeztera. Kuriositateak hartuta, emitituriko hiru programak irentsi ditut. Zaila egin zait Espainiako telebista kate publikoak arkitekturaren sustapenerako egiten duen *Escala humana* emankizunarekin ez alderatzea. Batzuetan, zenbait erdarazko saioren “euskal kopia” egiten du EiTBk, baina hau ez da kasua. Bi programen arteko desberdintasunek ez dakit zerekin duten erlazioa, arkitektura edo telebista ulertzeko (euskal) moduarekin Euskal Herriko (eta ez Euskadiko) edo euskal kulturarekin, oro har.

EiTBk arkitektura probestu du entrenimendua eta ikuskizuna egiteko, eta erdarako programan aldiz, arkitekturaren kultura herritarrengana iristeko desioa dago. Lehenengoan, aurkezle *vip* bat fitxatu dute –baina bigarren mailako funtzio bat betetzeko– eta pertsonaia ezagunak gonbidatzen dituzte; bigarrenean, arkitektoak dira hizlari batik batik. Lehenengoan, Euskal Herriko –eta ez Euskadiko– eraikinak dituzte hizpide; bigarrenean, arkitektura-kontzeptuak. Gure telebistako *Duelo en las alturas* goitekologiaren erakusle da: drone ikuspegiak eta 3D eskanerrak darabiltzate, eraikinak “inoiz ikusi ez duzun moduan” erakusteko. Eta modernotasun itxura hau amu herrikoiagoarekin uztartzen da: erakusten diren eraikinen arteko lehiaketa proposatzen da, ikusleen bozka eskatuz. Programak bataila baten erdian bagina bezala aurkezten ditu eraikinak, musikak lagunduta, eta arkitekturari epikotasuna eransten dio. Arkitektura beraz agertoki bat da, anekdota, euskal-mito eta esamesen leku, herritar oren interesa suspertu dezakeen leku amankomunen bila dabil.

Badirudi oraindik eztabaida zahar batean iltzaturik gaudela: zerbitzu publikoak mezu ulerterrazak komunikatu behar ditu, horretarako mezua bera sinplifikatuz, bestela elitista bilakatzen da. ●



Hiriburukoa ez dadila errepikatu

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Prefekturatik mezua: “Segurtasun alerta: Hiriburuko Aturri kolegioaren inguruan segurtasun perimetroa, polizia operazio baten harira”. Kontuan hartu beharreko mezua, baina distantziarekin hartu beharrekoa, Frantzia omnipresente den beldurraren eta barne-etsaiaren eraikuntza prozesua kontuan harturik. Alta, berehala komunikabideetan zen gaia, albiste garrantzitsuenei bideratzen zaien espazioa eskainiz. Guztietan: ez soilik *Bfmtv* gisako kapitalaren eskuetan diren *mainstream* komunikabideetan, ez-ez, euskal komunikabideek ere jarri dute lehen lerroan. “Bi ikaslek bi pertsona ikusi dituzte tapiza baten gainean otoitzean eta sartu lirateke kolegiara, bizkarreko zaku batekin”. Eraiki da panorama, inolako hausnarketa-distantziarik gabe zabaldu da mehatxu hipotetikoa, musulmanei lotuz lanjerra eta armadak babesturiko ikasleen irudiak zabalduz lau haizetara: arriskua/musulmana vs segurtasuna/Estatua. Laster jakin zen bi pertsonak ez zirela atzeman ikastetxean, eta hortik gutxira bagenuen prefekturaren baieztapena: “Frogatua da ez direla kolegiara sartu eta otoitza bazela, lanean hasi aitzin bi langilek buruturikoa” –haien kultu askatasunari segi, Allah agurtuz eta ingurukoak bakean utziz–. Baina berantegi zen: musulman arriskutsuaren irudia barreiatua zen. Harrigarria, kezkarria eta gogoetagarria urriaren 21ean gertatutakoa. Lagun irakasle batekin mintzo, oinarrian zegoen informazioa ikusirik, kolegioak segurtasun neurriak bideratu izana ulergarri zitzaion. Mahomaren karikaturak erakusteagatik dekapitatu izandako Samuel Patty irakaslearen itzala hor da, nola ez. Ez noa hortik. Harrigarria, kezkarria eta gogoetagarria urriaren 21eko kazetarien jarrera.

Frantzia dagoen giroa ikusita, musulmana terrorismoari lotzeko norabidea kontuan harturik, terrorismoaren mehatxupearan (sic) mugek hetsirik segitzen dutenean eta trenak etorkinen biziak lapurtzen dituzten honetan, kazetariok isiltasun tarte bat hartzeko ardura daukagu: informazioa jaso, ikertu eta egiaztatutakoan zabaldu. Frantziako presidentzialak ditugu laster. Botoen arrantzan, beste behin gaina hartuko dute beldurraren giroak eta islamofobiak. Kazetariok ezin dugu Hiriburun bezala aritu. Eragin handiegia dugu jendartean eta jendean, gisa horretara aritzeko. ●